



## DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2022

### LEHENDAKARITZA

1. 2030 Agendako bonuen programa. 2022ko deialdia .....	2
2. Kanpoan den Euskal Komunitateko kideentzako premia larriko laguntzak 2022an .....	4
3. 2022eko Euskal Etxeentzako diru-laguntzak .....	5
4. <b>Gaztemundu</b> .....	7
5. Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak .....	9
6. Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartrukerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak .....	11
7. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko diru-laguntza .....	13
8. Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak.....	15
9. Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak.....	17
10. Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak (2022-2023) .....	19



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2030 Agendako bonuen programa. 2022ko deialdia**

## 2.- Araua

23/2022 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 23koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2022rako 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak deitzen dituena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

23/2022 DEKRETUA, otsailaren 15ekoa, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituena.

EBAZPENA, 2022ko otsailaren 23koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2022rako 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak deitzen dituena.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Bonuen programa 2030 Agendaren arloko proiektuetarako dirulaguntzetan datza, euskal elkarte-sareko erakundeek garatutako dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza- edo herritarren partaidetza-ekintzak sustatzeko eta ugaritzeko, 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotuta.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Lehenengo deialdia izan da.

Laguntza horien esleipendun izan ziren irabazi-asmorik gabeko 52 erakunderen 102 proiektu desberdin onartu ziren.

Kreditu erabilia: 431.130,04 € (zuzkiduraren % 86,23)

Hartutako betebeharrak: 368.003,12 €

Berezitasunak:

- Bost proiektu onartu zitzaizkion erakunde batek ez zuen horietako bat ere gauzatu elkartea desegiteko bidean dagoelako.
- Hiru erakunderi 2 proiektu edo gehiago eman zitzaizkien, baina ez zuten horietako bat gauzatu, eta esleitutako dirulaguntza kobratzeko eskubideari uko egin ziotela adierazi zuten.
- 12 proiektuk esleitutako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoko justifikazioa aurkeztu dute, eta, beraz, esleitutako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoko ordainketa egin da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Diruz lagundutako proiektu kopurua	100	102



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kanpoan den Euskal Komunitateko kideentzako premia larriko laguntzak 2022an**

## 2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko dira.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua: 222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa.

Deialdia: EBAZPENA, 2022ko urriaren 18koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena.

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2022ko abenduaren 20koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da kanpoan den Euskal Komunitatea indartzea. Dirulaguntza-ildo horren bidez, komunitate hura osatzen duten eta premia larrian dauden pertsoneri laguntza ematen zaie. Horretarako, pertsona horiek kide diren familia-unitateei laguntza ekonomikoa ematen zaie.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022an laguntza horien diru-kopuru osoa, 212.000 euro (IV. kapitulua), honako herrialde hauetako euskal komunitateen familia-unitateen artean banatu da: Argentina, Kolonia, Kuba, Peru, Txile eta Venezuela. 2022an, familia-unitate horien % 71,57an emakumeak ziren buru; ehuneko hori ia edizio guztietan % 70etik gora dago, eta erakusten du Latinoamerikako euskal komunitateetan pobrezia fenomenoaren "batez ere, funtsean, emakumei" dagokiela.

## 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Premia larrian dauden familia-unitateei laguntzak ematea (lagundutako familia-unitateen kopurua).	100	95



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**2022eko Euskal Etxeentzako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

50/2008 DEKRETUA martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena (uztailaren 27ko 186/2021 DEKRETUAK eta irailaren 9ko 175/2014 DEKRETUAK aldatu dute aurreko DEKRETUA).

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Programaren araua: 50/2008 DEKRETUA martxoaren 18koa (uztailaren 27ko 186/2021 DEKRETUAK eta irailaren 9ko 175/2014 DEKRETUAK aldatu dute aurreko DEKRETUA).

Deialdia: EBAZPENA, 2022ko martxoaren 30ekoa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena.

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2022ko abenduaren 2koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2022rako euskal etxeentzako dirulaguntzen deialdia. Aurreikusitako laguntzak 947.420 eurokoak dira guztira. Laguntza horietako gehienak. 767.420 euro. IV. kapitularako dira —jardueren eta funtzionamenduaren gastuak—. Bestalde, VII. kapituluak —azpiegituren gastuak— 180.000 euro ditu —pandemiaren larrialdiaren ondorioz, aurreko urtean baino 60.000 euro gehiago—.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Deialdiaren emaitza orokorrari dagokionez, 73 euskal etxek jaso zituzten dirulaguntzak IV. kapituluaren (eskabide bakarra geratu zen kanpoan, deialdian ezarritako gutxienekoa (300 €) baino gutxiago eskatu zutelako). VII. kapitulari dagokionez, diru-kopururen bat eskatu zuten 42 ikastetxeetatik 37 izan ziren esleipendun, hau da, % 88.

Argentina da baliabide gehien lortzen dituen herrialdea, eta hori bat dator euskal etxeen kopuruarekin. Argentinan dago munduko euskal komunitate handiena.

Deigarria da Frantzia Estatu Batuen antzeko diru-kopuru baten esleipendun izatea, eta horrek bi irakurketa izan ditzake: alde batetik, Estatu Batuetako kultura dirulaguntzen mende ez egotea, eta, bestetik, Frantziaren kasuan ia zentro guztiek lortzen dutela dirulaguntzarik handiena (batez bestekoa 29.645 €-koa da, eta gehieneko dirulaguntza 30.000 €-koa da.

Zentro guztiek (1ek izan ezik) finantzaketa lortu zuten 2022an. Pandemiaren ondoren normaltasunera itzuli izanak azaltzen du hori.



Beraz, dirulaguntzen lerro honen aurrekontu-gauzatzea eta eragin soziala guztiz onak izan dira.

Genero-ikuspegiari dagokionez, dirulaguntza ildo horren zeharkako kontzeptua da, eta emakumeentzako jardueren balorazioan eta euskal etxeetako Zuzendaritza Batzordeetan duten presentzian islatzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
IV. Kapitulan	80	73
VII. Kapitulan	10	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gaztemundu**

## 2.- Araua

316/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena —martxoaren 31ko 38/2015 DEKRETUAK aldatua—.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

316/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena (martxoaren 31ko 38/2015 DEKRETUAK aldatua).

Deialdia: EBAZPENA, 2022ko uztailaren 27koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena.

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2022ko urriaren 7koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2022ko edizioko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko dena.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gaztemundu programa Euskadin egonaldi bat egitean datza, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak finantzatuta, egungo errealitatera hurbiltzeko modu gisa. Egonaldi horretan, onuradunek lan-jardunaldietan, eztabaida-foroetan eta antolatzen diren bisita kultural, instituzional eta turistikoetan parte hartu beharko dute.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Gaztemundu 1996tik egiten da eta kanpoan diren euskal etxeetako gazteei eskaintzen zaien programa da. Bi urtez gauzatu gabe egon ondoren pandemia zela eta —2020ko eta 2021eko edizioak—, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritzan erabaki zen 2022an nolabait berreskuratu behar zela galdutako denbora hori. Normalean, Gaztemunduk urtero gai monografiko bat lantzen du —euskal dantza, gastronomia, kultur kudeaketa, etab.—, prestakuntza-bisitekin konbinatzen dena. Euskal diasporako gazte horiei "prestakuntza-bisiten programa trinkoa" eskaintzeko garaia zela pentsatu zen, Euskadiren iragana, oraina eta etorkizuna bertatik bertara ezagutu zezaten. Nolabait programaren hamabost egun horietako bakoitzean "pilula superkontzentratuetan" ematea Euskadiren historia eta XXI. mendeko Euskadi eraikitzeke egiten ari den lana.

Egun bakoitzean hogeitaka urteko 20 neska-mutil horiek Euskadiko eremu batetik ibili dira eta prestakuntza-bisita egin dituzte. Ibilbide horrek Euskal Herriko kultura-, historia-, erakunde- edo zientzia- eta teknologia-enklabe esanguratsuak hartu ditu, Pirinioetako mugaren alde batean eta bestean: Oñati eta Bergara; Bidasoa eta Lapurdi; Donostia; Urolako kostaldea; Bilboko ezkeraldea; Durango; Bermeo



eta Gernika; Lea Artibai; Zamudioko teknologia-parkea; Berango eta Arratia; Bilbo; Tolosaldea; Nafarroa Beherea; Arabako Errioxa eta Añana, Gasteiz hiriaz gain, Gasteiz izan baita programaren "kanpamentu basea" 2022an. Lehendakaritzara, Eusko Legebiltzarrera, Gernikako Juntetxera eta Gipuzkoako Foru Aldundira ere egin dituzte bisitak.

Gaztemundu programaren 2022. urteko edizioan parte hartu duten gazteen jatorria honako hau izan da: Argentina (12 neska eta 4 mutil), eta pertsona bat herrialde hauetatik: Txile, Kolonia, AEB eta Uruguai.

Pandemia osteko aldiak eta Ukrainako gerrak garestitu egin dute erregaiaren prezioa, eta, horregatik, Gaztemundu 2022 Programaren aurrekontu-inpaktua ohikoa baino handiagoa izan da —92.000 eurora iritsi da, gastuak gora egin baitu, batez ere parte-hartzaileen joan-etorriko hegaldiei eta Programaren autobuseko joan-etorriei dagokienez—. Gastu hori asko konpentsatu da parte hartu duten neska-mutilek programarekiko izan duten gogobetetze-mailarekin, oso-oso pozik atera baitira esperientzia horretatik.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Hautatutako pertsonen kopurua	20	20





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazteria arloko egitarauak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 9koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2022. urtean gazteria arloan egitarauak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko modua arautzen duena.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106405e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205003e.pdf>

## 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazte elkarteek edo gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea xede duten erakundeek sustatutako lurraldeaz gaindiko urteroko jarduera programak egikaritzen laguntzea, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalentzako ikastaroak egitea, eta euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzeko jarduera zehatzak gauzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022. urtean 71 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik 59k lortu dute diru-laguntza, 1 ez da onartu, ez delako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu, eta beste 11ri hainbat arrazoirengatik ukatu zaie (deialdian eskatutako gutxieneko autofinantzaketara ez iristeagatik, gazteei zuzendutako jarduerak ez izateagatik, lurralde historiko bakar bateko hartzaileei zuzendutako jarduerak izateagatik, edo deialdiaren aplikazio-esparrutik kanpo zeudelako).

Emandako diru-laguntzen zenbatekoa 679.259 eurokoa izan da guztira, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (680.000 €) %99,89, alegia.

- Lurraldez gaindiko urteroko jarduera programak: 374.642 euro.
- Dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak: 8.400 euro.
- Azkenik, urteroko programan jaso gabeko jarduera zehatzak, euskal gazteriaren bizi-kalitatea sustatu eta hobetzea helburu dutenak, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erakundeek egindakoak eta helburu zein eduki berritzaileak edo eragin soziala dutenak: 296.271 euro.



Diruz lagundutako jarduera horiek erabilgarriak eta beharrezkoak dira gazte-elkartegintza sustatzeko, oro har, eta diruz lagundutako arloetan lekua duten jarduera eta programak bereziki, lehen deskribatutakoak. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako diru-laguntzak	55	59



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazte-taldeen arteko mugikortasunerako edo elkartruckerako jarduerak garatzeko diru-laguntzak**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 15ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, 2022. urtean gazte-taldeen arteko mugikortasun eta elkartruckerako jarduerak garatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106421e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204068e.pdf>

#### 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jarduerak gauzatzen laguntzea, Europako Batasuneko beste erregio eta estatu batzuetako elkarte edo erakundeekin batera jarduerak egiteko, bai eta gazteen arteko mugikortasunarekin edo elkartrukearekin lotutako lurraldez gaindiko sustapen, hedapen edo prestakuntza jarduerak ere.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

2022. urtean 15 diru-laguntza eskaera erregistratu dira Gazteria Zuzendaritzan. Horietatik, hasiera batean, 15 proposatu ziren diru-laguntza emateko, baina gero 2 erakunde onuradunek uko egin zioten emandako dirulaguntzari.

Esleitutako diru-laguntzen guztizko zenbatekoa 144.398 eurokoa izan zen, hau da, bideratutako zuzkidura ekonomikoaren (145.000 €) % 98,58. Hala ere, proiektuak onartu zitzaizkien eskatzaileetako 2k uko egin zioten eta, beraz, azkenean 137.844 € eman ziren.

Garbi dago jarduera guztiek betetzen dituztela aginduaren xedea, hori sorrerako filosofia, hau da, gazteen integrazioa bultzatzeko tresna bat, beste bat, izatea; kasu honetan, gazteen arteko mugikortasun edo elkartruckerako jardueren bidez, erakunde eskatzaileen ekimenarekin, askatasuna eta sormenerako ekimena baitituzte edozein jarduera edo programa planifikatu eta antolatzeko. Hainbat erakundetako elkartutako herritarren ekimenetik sortutako jarduerak dira, zalantzarik gabe; izan ere ezinbestekotzat



jotzen dute gazteen arteko mugikortasuna Europako kide izateko sentimendua sustatzeko, eta gaitasunak, trebetasunak eta konpetenziak garatuz sozialki eta profesionalki integratzen laguntzeko.

Hala, diruz lagundutako jarduerak erabilgarri eta beharrezkotzat joko dira gazteriarentzat, oro har, diren programa eta zerbitzuak eta, bereziki, gazteen arteko mugikortasuna, lehen deskribatutakoa, garatzeko. Alde horretatik, eragin handia dute jarduera horiek, gazteen sustapenari, garapen pertsonalari eta gizarte-integrazioari dagokienez.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Emandako diru-laguntzak	15	15



#### 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren barruan lankidetzako proiektuak garatzeko dirulaguntza**

#### 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 9koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, garapenerako lankidetzako erakundeei 2022an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako proiektuak aurkezteko deialdia luzatzen diena.

#### 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106320e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/09/2204117e.pdf>

#### 4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskadiko GGKEentzako dirulaguntza da, hiru hiletan Euskadiko 100 gazte gehienek hartuko dituzten lankidetzako proiektuak aurkez ditzaten. Programaren helburua da Euskadiko gazteak elkartasun eta parte-hartze balioetan sentibilizatzea. GGKEek 700 euro jasotzen dituzte aurkeztutako proiektuetan parte hartzen duen kooperante bakoitzagatik. 2022an, 100 eurora arteko laguntza gehigarria eman zen pertsona bakoitzeko, GGKEek COVID-19aren aurkako babes materiala erosteko.

#### 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

30 lankidetzako proiektu aurkeztu ziren, eta 413 gaztekin egin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 82k hartu zuten parte. Gazte horiek lankidetzako proiektuetan hartu dute parte udako hiru hilabeteetan, Amerikako, eta Afrikako 12 herrialdeetan.

Aurten 82 gaztekin parte hartu dute. Datu hori ontzat jotzen da kontuan hartzen bada 83 izan zirela GGKEek proiektuetan eskatutako profilak (beraz, plazen ia % 100 bete ziren). Gainera, kontuan izan behar da, 2022an, bi urteko pandemiaren ondoren, atzerrira nolabaiteko normaltasunez eta bermeekin bidaiatzeko lehenengo urtea izan zela. Ildo beretik, gogorarazi behar da zenbait GGKEek ez zutela proiekturik aurkeztu helmugako herrialdeetan osasun-egoera desegokia zelako. Horregatik guztiagatik, balorazio ona egiten da.

2022an lehenengo aldiz egin zitzaizkien inkesta kuantitatiboa gazteei. Inkesta horien arabera, parte hartu duten gazteek 8,42 puntu eman dizkiote programari, oro har. Hau da, pertsonen oso altua baloratu dute.



2022an, Euskadiko 14 GGKEk eta atzerriko 28 GGKEk parte hartu zuten; guztira, 42 GGKEk parte hartu zuten programan.

Aurrekontu-exekuzioari dagokionez, partidaren kreditua 80.000 eurokoa zen, eta horietatik 62.235,51 euro exekutatu dira.

Programaren erabilgarritasun eta inpaktu soziala handia dela uste da, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdetegietan, galdetu zitzaizen zenbateraino dauden ados esaldi hauekin, eta haien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetzaren proiektuak ezagutu eta horietan parte hartu ahal izan dit	9,05
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloko esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	9,15
EGL programak garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago egotea bultzatu du.	7,95
EGL programak beste lurralde batzuetatik pertsonenganako eta errealitateenganako begirada enpatikoagoa izaten lagundu du.	9,30

Ilido beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila:

Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,30
---	------

Horregatik guztiagatik, betetze maila egokitzat jotzen da, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituelako eta gizartean eragin handia duelako.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
GGKE parte-hartzaileak	40	42



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Euskadiko Gazteak Lankidetzan programarako diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2021eko abenduaren 13koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2022ko deialdia.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/12/2106490e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204782e.pdf>

## 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntza programa honen helburua honako hau da: 22 eta 30 urte bitarteko gehienez 100 gazte herrialde eta lankidetzaproiektu jakin batzuetara joateko erraztasunak ematea. Proiektu horiek proiektuen aurkezpena urtero arautzen duen Aginduan xedatutakoaren arabera hautatzen dira (AGINDUA, 2021eko abenduaren 13koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita «Euskadiko Gazteak Lankidetzan» programarako 2022ko deialdia).

2022an, handitu egin zen parte-hartzaileen adin-tartea, programa ezin baitzen egin 2020an eta 2021ean. Horregatik, aldi horretan 30 urte edo gehiago betetzen zituzten pertsonak sartu ahal izateko, 32 urtera arte luzatu zen.

Programa honen xedea da Euskadiko gazteak sentsibilizatzea hegoaldeko herrialdeetako lankidetzakintzetan, eta euskal gazteengan herrien eta kulturen arteko elkartasun-kultura sustatzea. Horretarako, lerro honek pertsonen helmugarainoko bidaia diruz laguntzen du, baita bidaia-asegurua eta bisa-gastuak ere.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

413 gaztek egin zuten eskaera, eta ondoren, horietatik 82 hartu zuten parte. 42 Garapenerako gobernu kanpoko erakundek ere hartu zuten parte, 14 Euskadikoak eta 28 xede-herrialdeetakoak, eta 30 lankidetzaproiektu garatu ziren, Amerika eta Afrikako 12 herrialdetan.

3 kontratu egin dira: bidaia-agentzia, autobus-zerbitzua eta laguntza teknikoa.



Programaren erabilgarritasun eta inpaktu soziala handia dela uste da, gazteek bildutako informazioa ikusita. Parte-hartzaileei egindako galdetegietan, galdetu zitzaizen zenbateraino dauden ados esaldi hauekin, eta haien balorazioa ikus daiteke:

EGL programari esker, garapenerako lankidetzaren proiektuak ezagutu eta horietan parte hartu ahal izan dut	9,05
EGL programan parte hartzeak garapenerako lankidetzaren arloko esperientzia bat in situ bizitzeko balio izan dit	9,15
EGL programak garapenerako lankidetzaren arloko ekintzetan sentsibilizatuago egotea bultzatu du.	7,95
EGL programak beste lurralde batzuetatik pertsonenganako eta errealitateenganako begirada enpatikoagoa izaten lagundu du.	9,30

Ilido beretik, GGKEek ere positiboki baloratu dute programaren helburuen betetze-maila:

Zure ustez, zenbateraino bete dira programaren helburuak?	9,30
---	------

Horregatik guztiagatik, programak hasieran planteatutako helburuak betetzen dituela eta gizartean eragin handia duela uste da.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
kontratua	3	3





## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Gazteen emantzipaziorako tokiko planak egiteko diru-laguntzak**

## 2.- Araua

AGINDUA, 2022ko apirilaren 27koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzen baita, 2022. urtean honako jarduera hauek sustatzeko: diagnostiko-azterketak egitea, gazte-emantzipazioko planak eta gazte-planak egitea, plan horien jarraipena edo ebaluazioa egitea, eta toki-mailako beste ekimen batzuk egitea edo horiek sistematizatu eta ebaluatzea, baldin eta horien helburua gazteen emantzipazio-prozesuan laguntzea bada.

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

Araua eta deialdia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/05/2202047e.pdf>

Emate-erabakia:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2205004e.pdf>

## 4.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren helburua da diru-laguntzak ematea toki-erakundeei gazteen emantzipaziorako planak edo emantzipazioari lotutako beste ekimen batzuk egiteko.

Diruz lagun daitezkeen arloak: diagnostiko-azterlanak, gazteen emantzipazio-planak, gazte-planak edo gazteen emantzipazio-prozesua laguntzeko beste ekimen batzuk egiteko gastuak ekitaldian zehar.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

11 eskaera erregistratu dira. Horietatik 7k diru-laguntza jaso dute eta 2 ukatu egin dira deialdiaren baldintzekin bat ez etortzeagatik. Ondoren, 2 erakundek emandako diru-laguntzari uko egin zioten, aurreikusitako jarduerak garatzea ezinezkoa zelako.

Programaren betetze-maila baxua da ikuspuntu ekonomikotik, 54.667,81 euroko diru-laguntzak eman baitziren, hau da, aurrekontu erabilgarriaren %3,42. Hala ere, kontuan izan behar da sortu berri den laguntza-lerro baten bigarren edizioa dela, eta, beraz, laguntza horren onuradun izan daitezkeen erakundeei oraindik ez dutela ezagutzen.

Diruz lagundutako jardueren artean, kasu batean emantzipazio-plana egiteko izan da, eta beste batean gazte-plana egiteko. Planak oso interesgarriak dira gazte-politika publikoentzat ikuspegi integrala islatzen baitute, helburuak, ekintzak eta emaitzak aztertzeko eta ebaluatzeko tresnak biltzen dituztelako. Beste 3



kasutan herriko gazteen emantzipazioan eragin zuzena duten faktoreen egoerari buruzko diagnostiko-azterlanak egin dira (diru-sarreraren maila eta etxebizitza, batez ere). Horrelako azterlanak egitea oso positibotzat jotzen da, politika publiko eraginkorrek diseinatzeko funtsezko elementua baitira. Diruz lagundutako gainerako jarduerak foroak eta partaidetza-prozesuak bultzatu dituzte, batetik, premien ezagutzan sakontzeko eta, bestetik, gazteen eskaerei erantzun ahal izateko proposamen berritzaileak garatzeko aukera ematen duten formulak baitira.

Diruz lagundutako jarduerak interes ukaezina dute deialdiaren helburuei dagokienez; izan ere, honako premisa hau hartzen da abiapuntutzat: gazte-politikek bizi-baldintzen benetako hobekuntzan eragin dezaten, eragin nahi duten gizarte-errealitatea zehatz-mehatz ezagutu behar dute. Eta horixe da, hain zuzen ere, deialdi horren xede den jarduera motarekin lortzen dena.

#### 6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Toki erakundeentzako diru-laguntzak, gazteen emantzipazio planak eta ekimenak garatzeko	40	7



## 1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

**Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka (2022-2023)**

## 2.- Araua

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena (otsailaren 1eko, EHAA, 23. zk.)

## 3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAARI Hiperesteka)

12/2019 DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beka arautzen dituena.

EBAZPENA, 2022ko uztailaren 27koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko beken deialdia egiten duena 2022-2023 aldirako.

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 12koa, Kanpo Harremanetako idazkari nagusiarena, kanpo-harremanen arloan gazteak prestatzeko beka esleitzen dituena 2022-2023 aldirako.

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 29koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2022-2023 aldirako Kanpo Harremanen arloan gazteak prestatzeko bekei aurkeztutako uko egiteak onartu eta ordezkari pertsonak zehazten dituena.

## 4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beken helburua da beren karrera profesionala esparru horretan garatzeko ahalmena duten gazteei nazioarteko prestakuntza ematea, bereziki honako arlo hauetan: Europako Gaiak, Kanpoko Euskal Komunitatea eta Kanpo Harremanak.

2022-2023ko deialdian 12 beka eskaini ziren, 4 Zuzendaritza/arlo bakoitzerako, honako toki hauetarako:

- Europar Gaiak: 2 beka Vitoria-Gasteizen; 2 beka Bruselan.
- Kanpoan den Euskal Komunitatea: 2 beka Vitoria-Gasteizen; beka 1 Buenos Airesen; beka 1 New Yorken.
- Kanpo Harremanak: 2 beka Vitoria-Gasteizen; beka 1 Santiago de Chilen; beka 1 Bogotan.

## 5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. Dirulaguntza-programaren genero-ikuspegian izango duen eragina ere jasoko da, hala dagokionean

Eskaintako 12 beketatik 8 bete ziren, eta hauek bete gabe geratu ziren: Europar Gaien arloko beka 1 Vitoria-Gasteizen eta Kanpoan den Euskal Komunitateren arloko 3 beka (2 Vitoria-Gasteizen eta 1 New Yorken), interesdunek ez baitzuten eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu.



Azkenean, eta 2 uko egite gertatu ondoren, Kanpo Harremanen arloko beketako bakar bat bete ahal izan zen, eta beste bat hutsik geratu. Beraz, guztira 12tik 7 izan dira betetakoak.

Beken eragin soziala garrantzitsua da, batez ere graduiko ikasketak egin berri dituztenentzat. Esperientzia berria da prestakuntzaren arloan, Eusko Jaurlaritzan edo Euskadik kanpoan dituen ordezkari-tzetan edo haien mendeko bulegoetan gauzatzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Beka kopurua	12	7